

Telling

Madrilen, 1982eko Urtarrilak 4ean Astelehena

Pierre Lafitte Jauna
USTARITZ (Lapurdi)
EUSKAL HERRIA

Jaun agurgarria:


Errespeturik handienez eta mirespen sakon sakonez zuzentzen naiz zuregana. Madrildar euskaldunberri eta euskaltzale gaztea naiz (18 urtetakoa hain zuzen), eta zure lan batzu hor edo han irakurriak ditudalarik, nire zorion zintzoak agertu nahi dizkizut gutun honen bitartez. Zure lanek, benetan, nire euskal jakinnahi sutsuak ezin hobe betetzen dituzte, batez ere GRAMMAI RE BASQUE liburu bikain horrek. Euskarak horrelako liburu gehiago beharko lituzke.

Baina nire eskutitz honek badu beste xederik ere. Alegia, ez dakit ia ezer ere Ipar Euskal Herriko euskal taldeek antolatutako ekintzez. Hegoaldekoek buruz, bai, badakit lan ederra daramatela, baina zer egiten da, ordea, Iparraldean, euskararen aldeko borrokari dagokionean? Horregatik, hango talderen baten helbidea eman diezadazula eskatu nahirik natorkizu (segur bait nago talde horiek esistitzen direla), haiekin harremanetan sar nadin.

Bestalde, HERRIA izeneko aldizkari bat zuk zuzentzen duzula nunbait irakurri dut. Ale pare bat bidal zeniezadake? Hemen nik ezin dudalako lortu, eta beraz oso eskertuta geratuko nintzaizun.

Bestetik gabe, zure esanetara gelditzen naizelarik, espero dut zure jakindurak nire hutsak barkatzen jakinen duela.

Jaungoikoak osasun ona eman diezazula opa dizu zeure ikasle apal honek



Santiago del Pino Verdes-Montenegro
Marcelo Usera, 161; b^a dcha.
Madrid 26 (Espainia)